

Atarrabiako frontoian dagoen Euskal Herriko armarrria ezabatzeko agindua eman dute

EUSKALERRIAIRRATIA.EUS :: 06/03/2024

Nafarroako Auzitegi Nagusiak eman du agindua "Jarrera politiko jakin baten aldeko adierazpen bat dela" argudiatuta.

Euskal Herriko Zazpiak Bat armarrria da ezabatu beharrekoa. "Jarrera politiko jakin baten aldeko adierazpen bat dela" dio epaiak, "botere publikoei eska dakiekeen neutraltasun-betebeharra urratzea dakarrena".

Atarrabiako pilotalekuan dagoen Zazpiak Bat armarrria ezabatu beharra berretsi du Nafarroako Auzitegi Nagusiak. Frontoia berriz margotzeko prozesuan 'Euskal Herria' goiburuean zazpi probintziatako armarrria ezabatu beharra zehaztu zuen Administrazio Auzitegiak. Izan ere, "neutraltasun politikoaren aurka" doa. "Jarrera politiko jakin baten aldeko adierazpen bat dela" dio epaiak, "botere publikoei eska dakiekeen neutraltasun-betebeharra urratzea dakarrena".

Atarrabiako udalak errekurtsioa aurkeztu zuen baina Nafarroako Auzitegi Nagusiak atzera bota du eta ezabatzeko agindua berretsi du. UPN izan zen auzia salatu eta egoitza judizialera eraman zuen alderdia. Atarrabiako Udalak aurkeztutako agirietako batean, Auzitegiak azpimarratu duenez, "Udalak berak eman zuen 'Euskal Herria' terminoaren erabilera alderdikoiaren berri".

'Euskal Herria' terminoa eta armarrria frontoian egindako kirol-jarduerarekin lotuta dagoela aipatu arren, "erabilera alderdikoa edo horren ziurgabetasuna" zein "neutralki erabiltzeko aukera" ere existitzen da, eta, ezin da baztertu asmo politikorik gabe ezarri izana. Hartara, epaiak berresten du armarrria ezabatu behar dela.

"Armarrriak, ikur gisa, mezu bisual bat bidaltzen dio hartzaileari. Ikusizko mezua esanahiz beteta dago, eta horien zati bat, gaur egungo testuinguru juridikoan, politikoan, administratiboan eta sozialean, oso urrun dago apaindurazko helburu batetik", azpimarratu du epaitegiak. Ezin da zehaztu "soilik errealitate historikoak, kulturalak edo kirolekoak izendatzera" mugatzen denik. Gainera, zazpi lurraldeak barne hartzen dituen armarrria denez, ikuslearengan duen eragin bisual identifikatzailea eta konbentzimendu ere kontuan hartzekoa da ", gaineratu du Auzitegiak.

<https://eh.lahaine.org/atarrabiako-frontoian-dagoen-euskal-herriko>